

KOPLAK ERRITMO LASAIAN KANTATU BEHAR DIRA.

Zorion etxe hontako danoi
 oles egitera gatoz
 Aterik ate ohitura zaharrak
 Aurten barrizteko asmoz.
 Ez gagoz oso aberats diruz
 ez ta bere oinetakoz
 baiña eztauriz sano gabiltza
 ta kanta nahi dogu gogoz.

(Dendetan)

Eskean gatoz baina ez gara
 inoren erasotzaile
 egun honetxek atera gaitu
 kaletara kantatzaile.
 Denda honetan kajoitxo asko
 danak giltza ta zerraile
 estraperloko kajoitik bota
 peseta pare bat mille.

Santa Ageda bezpera dogu
 Euskal Herriko eguna
 etxe guztiak kantuz pozteko
 aukeratua doguna.
 Danon poztasuna izan dadila
 geure bideko laguna
 haren laguntzaz bete daigula
 egun hontako jarduna.

(Tabernetan)

Ure gustetan jaku eskuak
 ta aurpegia garbitzeko
 baina napar baltza behar dogu
 eztarria bustitzeko.
 Txanpaina bera edango geunke
 norbaitek balitz emoteko
 pattarra ez da txarto etorten
 bizkarreko hotza kentzeko.

Ai gure Ageda, Ageda bihar da Santa Ageda bihar da Santa Ageda eta gaur haren bezpera gaba	Sentitzen zaitut sentitzen jagitte zelan zabiltzen zure ointxuen txiplixtin hotsa sala barria astintzen.
Aintzat hartua izan dedila Etxe honetako jentia Pobre ta umil dabizenentzat Ba dauke borondatia.	Errotapian barria haren gaiñien txoria eraztun baten pasa litteke maitia zure gerria.
Eder zeruan izarra errekaldian leizarra etxe hontako bizilagunak urregorrizko pitxarra.	Haiziak eta euriak atera behar begiak potzurik potzu galduten jataz neuri lagunik erdiak.